

P.-T. Ducourrau naturalistaren kaierak

Biarritzeko XIX. mendeko aberediaren iruditegia

Mirikoi isatslaburrak

Hegazti palmadunak



Ezaugarri fitxa

P.Th. Ducourrauren terminologia

Izen zientifikoa: **Lestris parasiticus Stercocarius brisson**

Frantsesezko izena: **Stercoraire parasite, Labbe parasite**

Sailkapena: **Hegaztia – 6. ordena - Palmadunak**

Beste izenak: **Caganérou (Gaskoinez)**

Gaurko terminologia

Izen zientifikoa: **Stercorarius parasiticus**

Frantsesezko izena: **Labbe parasite**

Euskarazko izena: **Mirikoi isatslaburra**

Izena / Sailkapena

Lestris parasiticus Stercocarius brisson
Stercoraire parasite (Stercus : zirin), edo Labbe
Dq Jaunaren edo Rissoren katalogoan ez da agertzen.

Stercoraire parasite, caganérou gaskoinez, Anyoulet, edo Pothiorrou

Eskuizkribuaren transkripzioa

Xehetasunak

Sudur-ziloak

Beste hegala azpitik ikusia

Deskribapena

Mintz osoak dituen palmaduna, hankak gorputzaren erdian kokatuak, sabelaldetik kanpo, Aintzineko 3 hatzak mintzek lotuak, 4. hatza gibelera, 3 aintzinekoengandik bereiztua.

Moko hortzduna eta punta makoduna.

Masailetatik buztaneko lumak arte azpian txuria den palmaduna. 2 artikulazioko hegalen gainean beltza.

Moko beltza, sudur-ziloak, mokoaren azpiko partearen gainean 2 irekidura hantura batean.

Paten barneko partea arrosa eta azal kolorekoa.

Hanken kanpoko partea arrosaila

Hegal oso handiak, penen ?? lumen neurria eman dugu.

Mokoa begi azpia arte ireki daiteke.

Oharrak

Biarritzen, 1866ko irailaren 27an, neurri naturalean, naturalaren arabera margotua.

Dq Jaunak ikusia.